

GURE JARDUERETARA IRISTEA ERRAZTEKO NAHIZ JARDUEAZ ENTZUMEN-GAITASUN HOBEAZ GOZATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA BEHAR IZANEZ GERO, ESKA IEZAGUZU. AZKUNA ZENTROA ESPAZIOA IRISGARRIA DA PERTSONA GUZTIENTZAT.

SI NECESITAS ALGUNA AYUDA TÉCNICA QUE TE FACILITE EL ACCESO A NUESTRAS ACTIVIDADES, O PARA DISFRUTAR DE LA ACTIVIDAD CON MEJOR CAPACIDAD AUDITIVA, PÍDENOSLO. AZKUNA ZENTROA ES UN ESPACIO ACCESIBLE PARA TODAS LAS PERSONAS.

SHOULD YOU REQUIRE ANY TECHNICAL ASSISTANCE TO HELP YOU ACCESS OUR ACTIVITIES, OR IN ORDER TO ENJOY THE ACTIVITY WITH A BETTER HEARING, DO NOT HESITATE TO ASK US. AZKUNA ZENTROA IS A PLACE ACCESSIBLE TO ALL PEOPLE.

### ZENTROAREN ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera  
7:00 – 23:00  
Ostirala  
7:00 – 24:00  
Larunbata  
8:30 – 24:00  
Igandea  
8:30 – 23:00

### HORARIO DEL CENTRO

De lunes a jueves  
7:00 – 23:00h  
Viernes  
7:00 – 24:00h  
Sábado  
8:30 – 24:00h  
Domingo  
8:30 – 23:00h

### CENTRE OPENING HOURS

Monday- Thursday  
7:00am-23:00pm  
Friday  
7:00am-24:00pm  
Saturday  
8:30am-24:00pm  
Sunday  
8:30am-23:00pm

[www.azkunazentroa.com](http://www.azkunazentroa.com)


info@azkunazentroa.com  
Plaza Arriquirar, 4 Bilbao  
944 014 014



Komunikazio Lankideak | Medios colaboradores | Media partner



[www.azkunazentroa.com](http://www.azkunazentroa.com)



Artistas ideales. 1990

© Txomin Sáez

# je, je... luna

## MARÍA LUISA FERNÁNDEZ

Obras entre / Artworks between 1979-1997 bitarteko artelanak

ERAKUSKETA  
2015 • EKAINA • 18 — IRAILA • 13

EXPOSICIÓN  
18 • JUNIO — 13 • SEPTIEMBRE • 2015

EXHIBITION  
18 • JUNE — 13 • SEPTEMBER • 2015

ORDUTEGIA  
Astelehenetik igandera 11:00-21:00

HORARIO  
De lunes a domingo 11:00-21:00h

OPENING TIMES  
Mondays - Sundays: 11am - 9pm



[www.azkunazentroa.com](http://www.azkunazentroa.com)



Komunikazio Lankideak | Medios colaboradores | Media partner



## María Luisa Fernández. *Je, je... luna*

1979–1997 bitarteko artelanak

Erakusketa honek ibilbide bat egin nahi du María Luisa Fernández artistaren lanean barrena (Villarejo de Órbigo, León, 1955); era askotako marrazki-, eskultura- eta instalazio-multzoak jarriko ditu harremanean, orain arte atzera begirako erakusketa batean egon gabeak. Lanak, 1979tik 1997ra bitartean eginak, *Artista ideal* baten figurara egindako hainbat hurbilpen eta saioaren artekoak dira. Gai hori eskultorearen produkzioan ageri da 1997ra arte, hau da, banakako azken erakusketa egin zuen arte. Horren ostean, jardun barik egon zen luzaroan.

CAV (Comité de Vigilancia Artística) taldearen garaiko piezekin hasten da *Je, je...luna* erakusketa. CAV kolektiboa ‘arte-enpresa’ gisa sortu zuen Juan Luis Morazarekin batera, eta martxan egon zen 1979tik 1985era. Taldeak era kritikoan hausnartu zuen lanak aurkezteko eta jasotzeko mekanismoei, instituzioari edota arte garaikidearen sistemari buruz. Hain zuzen, gogoeta kritiko hori da erakusketa honetako objektu eta dokumentuen sorburua. Bestalde, *Mitos y delitos* erakusketan parte hartu zuenetik (Metronom, Bartzelona, eta CAM kultura-aretoa, Bilbo, 1985), taldearen siglak ‘Euskal eskultura berria’ izenekoarekin daude lotuta. Bilbon bizi ziren zenbait artistak eratutako Euskal Eskultura Berria kolektiboa erreferentea izan zen laurogeiko hamarkada markatu zuten artearen inguruko praktiketan eta eztabaidetan.

Garai harekin eta eszena jakin harekin –*belaunaldia, nahi gabe* definitu zuten orduko protagonista batzuek– izandako elkarrizketetan daude kokatuta erakusketako lanak. Lehenbizi kolektiboaren barruan, eta, kolektiboa desegin eta gero, banaka, hainbat lan-serie egin zituen; esaterako, hauek: *Máculas* (1984-1985), *Leyendas* (1985-1986), *Melenas* (1988), *Esculturas rojas* (1989), *Burladeros* (1990) eta *Corridas* (1996-1997). Era berean, *Burlas expresionistas* (1993) eta *Artistas ideales* (1990-1997) jaso ditugu erakusketan, artistak bere ibilbidean barrena garatu dituen ikerketa-ildo nagusiak biltzen dituzten bi instalazio.

María Luisa Fernándezen lanek era askotako hizkuntza artistikoak hartzen dituzte, hala kontzeptual eta minimalismoko post-ak, nola joera konstruktibisten eta Euskal Herriko eskulturaren tradizioko elementuen arteko gurutzaketa, artistak Euskal Herrian jaso baitzuen prestakuntza. Bere piezetan, ohikoak dira zentzu bikoitzak eta hitz-jokoak; eta, era berean, kritika eransten die artearen historiako kontakizun ofizialei, kontakizun ofizial horren interpreteen arrastoa suma baitaiteke bere lanetan. Laurogeiko hamarkadan, autoretza, ahalegina edo *genius loci* bezalako nozioak berreskuratzen ziren eta eragina izan zuten. Fernándezek arretaz begiratu izan dio eragin horri, eta nozio horiek zalantzak jartzen ditu etengabe bere lanetan.

Testuinguru horretan, artistak dioenez, «zerbait ikusgai izateko» ekoizteaz gain, «behatuko digun zerbait eta behatzeko zerbait izateko» lan egin daiteke. Hala, *Artistas* serieko modelo alternatiboak egin zituen, eta erakusketan *autoritate-figuren* erretratuen aurrez aurre jarrita daude.

María Luisa Fernándezen lanak bilduma hauetan daude sartuta: Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía (Madril); MACBA (Bartzelona); Fundación La Caixa (Bartzelona); Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro Museoa (Vitoria-Gasteiz); eta hainbat bilduma pribatutan.

Bestalde, 2016. urtean, erakusketa hau MARCO, Vigoko Arte Garaikideko Museoan egongo da ikusgai.

## María Luisa Fernández. *Je, je... luna*

Obras producidas entre 1979 y 1997

Esta exposición plantea un recorrido por el trabajo de la artista María Luisa Fernández (Villarejo de Órbigo, León, 1955) en el que se relacionan distintos grupos de esculturas, dibujos e instalaciones que, hasta la fecha, no se han mostrado de manera retrospectiva. Las obras, producidas entre los años 1979 y 1997, forman parte de distintos ensayos y acercamientos a la figura de un *Artista ideal* que está presente en la producción de la escultora hasta su última muestra individual en 1997, momento que da paso a un largo periodo de inactividad.

*Je, je...luna* se inicia con piezas que pertenecen al periodo de CVA (Comité de Vigilancia Artística), un colectivo concebido como ‘empresa artística’ puesto en marcha junto a Juan Luis Moraza entre los años 1979 y 1985. Esta selección de objetos y documentos surge de la reflexión crítica llevada a cabo por el grupo en torno a los mecanismos de presentación y recepción de las obras, la institución o el sistema del arte contemporáneo. Tras su participación en muestras como *Mitos y delitos* (Metronom, Barcelona y Aula de Cultura, CAM, Bilbao, 1985) sus siglas se asocian a lo que se conoce como ‘Nueva escultura vasca’, un grupo de artistas asentado en Bilbao que se convirtió en referente de las prácticas y los debates artísticos que marcaron la década de los años ochenta en el contexto del País Vasco.

En ese diálogo con un tiempo y una escena concreta –calificada por alguno de sus protagonistas como de *generación sin querer*– se localizan las obras presentes en esta exposición. Primero como parte del colectivo y, tras su disolución, de manera individual, con importantes series de trabajos entre las que se encuentran: *Máculas* (1984-1985), *Leyendas* (1985-1986), *Melenas* (1988), *Esculturas rojas* (1989), *Burladeros* (1990) o *Corridas* (1996-1997). A lo largo de la muestra también se incluyen *Burlas expresionistas* (1993) y *Artistas ideales* (1990-1997), dos instalaciones que reúnen las principales líneas de investigación desarrolladas por la artista en su trayectoria.

Las obras de María Luisa Fernández se caracterizan por incorporar lenguajes artísticos dispares: desde los *post* del conceptual y el minimalismo a elementos que provienen de los cruces entre los constructivismos y la tradición de la escultura en el País Vasco, lugar de formación de la artista. También es frecuente en sus piezas el uso de los dobles sentidos y los juegos de palabras, así como la incorporación de la crítica a los relatos oficiales de la historia del arte, a cuyos intérpretes es posible rastrear en estas obras. De este modo, la artista se mantiene atenta a la influencia que en la década de los ochenta ejerció la recuperación de nociones como autoría, esfuerzo o *genius loci*, temas que son cuestionados de manera permanente en sus trabajos.

En este contexto, Fernández afirma que, además de producir para «tener algo que ver», es posible trabajar «para tener algo que nos mire y con lo que mirar», elaborando así una serie de modelos alternativos de *Artistas* que se contraponen en la sala de exposiciones a los retratos de las *figuras de autoridad*.

El trabajo de María Luisa Fernández forma parte de las colecciones del Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía (Madrid); MACBA (Barcelona); Fundación La Caixa (Barcelona); Artium, Centro-Museo Vasco de Arte Contemporáneo (Vitoria-Gasteiz); así como de distintas colecciones privadas.

La muestra será presentada en el Museo de Arte Contemporánea de Vigo, MARCO, en 2016.

## María Luisa Fernández. *Je, je... luna*

Artworks between 1979–1997

This exhibition traces a journey through the work of artist María Luisa Fernández (Villarejo de Órbigo, León, 1955). It shows different groups of sculptures, drawings and installations which to date have not been shown as a mid career retrospective. These works, produced between 1979 and 1997, are part of the different approaches around the figure and the concept of an *Ideal Artist* that is present through the artist production until her last individual exhibition in 1997, a time when she gave up for a long period of inactivity.

*Je, je... luna* begins with pieces belonging to the CVA (Artistic Surveillance Committee) period, a group conceived as an ‘artistic company’ and set up with artist Juan Luis Moraza between 1979 and 1985. This selection of objects and documents came up from the critical reflection of the group regarding the presentation and reception mechanisms of the works, the institution or the system of contemporary art. After her participation in exhibitions like *Mitos y delitos* (Metronom, Barcelona and Aula de Cultura, CAM, Bilbao, 1985) her works were associated with the so-called ‘New Basque sculpture’, Bilbao based reference group of the artistic practices and discourses which marked the 80s within that context.

It is in this dialogue and within a specific time and scene –defined by one of its protagonists as belonging to the *unwilling generation*– where we can place the works of this exhibition, firstly as part of a large group, and then individually. This venue shows important series of works which include: *Máculas* (1984-1985), *Leyendas* (1985-1986), *Melenas* (1988), *Esculturas Rojas* (1989), *Burladeros* (1990) or *Corridas* (1996-1997). *Burlas expresionistas* (1993) and *Artistas ideales* (1990-1997), two installations comprising the main lines of research developed by the artist during her career, are also included throughout the exhibition.

María Luisa Fernández’s works are characterized by the use of disparate artistic languages ranging from post-conceptual and minimalism to elements coming from the intersections between constructivism and the tradition of the Basque sculpture, training ground of the artist. The use of ‘doublé entendres’ and puns is also frequent in her production, as well as incorporating of a critical vision to official versions of the 20th century history of art, whose interpreters can be traced through her works. Thus, Fernández remains attentive to the influence of the 80s, which brought back notions like those of authorship, effort or genius loci, constantly questioned in her works.

In this context Fernández also asserts that in addition to «having something to see» we can also work «so as to have something looking at us and something to look with», thereby creating a series of alternative *Artist* models which are contrasted with the portraits of the *figures of authority* in the exhibition hall.

María Luisa Fernández’s works are included in the collections of the Reina Sofía Museum (Madrid); MACBA (Barcelona); La Caixa Foundation (Barcelona); Artium, Basque Centre-Museum of Contemporary Art (Vitoria-Gasteiz); Murcia Contemporary Art Collection; as well as in different private ones.

This exhibition will be presented at the Museum of Contemporary Art, Vigo, MARCO, in 2016.